

URA

KALE-IRAKURRIA



1. geltokia

Audre Lorde- Moldatzen
Mario Benedetti - Banpiroei buruzko istorioa
Isabel Diez - Ekarrri didazu gogora
Bitoriano Gandiaga - Iturrian
Joseba Sarrionandia - Ibaia

2. geltokia

Tene Mu ika - Ikazkin liluratua
Andoni Tolosa- Itsaso puska bat
Martin Chaplin - Itsasoan zerate ezkututzen
Joxan Artze - Iturri zaharretik
Itxaro Borda - Noizteinka bere oinak iturrira

3. geltokia

Paolo Consigli - Izaki bizi guztiak bezala
Unai Baztarrika - Kanpoan euria
Leire Bilbao - Ura iturrian behera
Maria Merce Mar al - Uraren erromeria
Friedrich Nietzsche - Mendi gailurretatik

4. geltokia

Miren Agur Meabe - Uraren estratak
Maude Barlo - Mundu modernoa
Patziku Perurena - Negu atarian
Koldo Izagirre - Nire ibaia
Balendi e Albizu - Orinoco Ibaia

5. geltokia


Gabriel Manterola - Oyaneko iturria
Antonio Casado da Rocha- Sommelier
Dami n Pedrosa - Ura
Jon Mirande - Zakur hil bati
Marina Garc s - Zerbait eustea

URA

KALE IRAKURRALDIA

MAIATZAK 5


12:00 BITERITIK



Euria ari duenean, zer gertatzen da ur fresko horiekin guzkiekin? Non gordetzen da? Behera doa tantaz tanta eta lurraren barna ez dago ikusterik. Baina berriro topatu daiteke, iturrietara joz gero.

Karobietatik behera datorren ura, Urbietatik kaleko kioskoan entzungo dugu (1). Ur bera da Atarrabiyo parkeko zuhaitzak elikatzen dituena; bertan beste iturri bat dago (2). Hernaniko jendeak badaki, antzina, orain Latsunbe auzoa dagoen tokian erreka bat zebilela, oraindik harlauzen azpitik entzun ahal dena; haren arrastoak ikusiko ditugu Ave Maria parkean zehar. Zinkoenean, kale Nagusiak eta Andrekaleak bat egiten duten tokian beste iturri bat dago (3); korrontearen kontra eginez, Tilosetan edo Ezkiaga pasealekuan topatuko dugu berriro ura (4), ez dadila dena sagardoa izan. Eta hortik gure azken geltokira iritsiko gara, Leoka labaderora (5), antzina emakumeen topalekua, non mila urte eta gero oraindik ere ura bor-bor ari duen.

5 geltoki horiek lotuz, kale irakurraldia egingo dugu maiatzaren 5ean, larunbatez, Biteri kultur etxetik 12:00etan abiatuz.





Moldatzen

AUDRE LORDE

Bost egunez egin du euria
goiti-beheiti
putzu biribil bat
da mundua
eguzkirik gabeko ura
non uharte txikitxoak
hasi berriak baitira
moldatzen.
Mutiko gazte bat
nire lorategian
ura ateratzen ari da
bere lore-sailetik
zergatik? galdetuta
esan dit
eguzkia ezagutzen ez duten hazi gazteak
ahaztu
eta aise itotzen direla.

Banpiroi buruzko istorioa

MARIO BENEDETTI

Bazen banpiro bat ura urrupatzen zuena
gauetan eta ordu txikietan
eguerdian eta afari orduan

Odol abstemia zen
eta horregatik zen
beste banpiroentzat lotsa iturri

Korrentearen kontra banpiro anonimoen
elkarte bat sortzea erabaki zuen,
hilbehera garaian kanpainia egin zuen,
hilgora eta hilargi betean
bere pankarta xumeek zera aldarrikatzen zuten
banpiroak ! edan ezazute ura !
odolak kantzerra sortzen du!

Kiropteroek argi zuten,
beraien itzalezko agoretan bildurik,
hori harrigarria zela zuten iritzi,
ero horrek, aluzinatu horrek
banpiro ahulak komentzitu ahal zituen,
odolaren ostean boldoa xurgatzen duten horiek.

Beraz gau batean
ekaitzetako hodeiekin,
bost banpiro indartsu,
hematies, plaketaz eta leukozitoz egarri,
ero eta matxinatu hori inguratu zuten,
eta berarekin akabatu zuten
bera eta bere inprudentziarekin.

Behingo batez hilargia
azaldu ahal izan zenean
banpiro anonimoaren gorpua ikusi zuen
han behean,
banpiro anonimoaren gorputz gizajoa,
jarioz zeuden bost zauriekin,
urez osatutako putzu handi bat eginez,
hilargiak ikusi ezin izan zuena
zera izan zen
bost exekutatzaileak
zuahitz batean gordetzen zirela
eta atsekabez onartzen zutela
horrek etzuela gustu txarra

Historikoa izan zen gau horretatik aurrera,
banpiro ar eta emeek,
ez dute odol gehiago xurgatzen
ahobatez erabaki zuten urara pasatzea.

Horrelako kasuetan gertatzen den bezala
banpiro anonimo berezia
gurtu egiten da martir gisa

Ekarri didazu gogora

ISABEL DIAZ

Kafe usaina
goizeko ordu txikietan

izara ipini berriak
lotaratzeko orduan

pentsamendu lilia
orri zuri artean

uraren mintzo gardena
gaueko ixiltasunean

irrifarre zabala
udako ekaitz ostean

ostadarraren atea
bidea amaitzen denean

esku beroa
izerdi hotzaren gainean

ekarri didazu gogora
adiskide mina

hau guztia

pentsatzen jarrita
zer zaren zu niretzat

Iturrian

BITORIANO GANDIAGA

ITURRIAN

ari
zen
ura,
eto
-rrian
age
-ri
zen,

jo -an -e -an iz -ku -ta -tzen.
E -to -rri -jo -an -en po -e -ma
ibil
-tari
-aren
hari
ta
gai
isur
-kari,

iz -ku -tu -tik
e -to -rri -ta
iz -ku -tu -ra jo -an a -ri zen,
a
-ri
ta
ha
-ri
ura.

Ibaia

JOSEBA SARRIONANDIA


Ez da Danubio deitzen,
ez da Mississippia,
Ibaizabal deitzen da nire
sorterriko ibaia.
Ez da Danubioa,
ez da Ibai Horia,
erreka labur mehe
herdoil urez betea.
Han ibiltzen ginen, antzina,
hango Harripausuetan...

Ez da Danubio deitzen,
ez Nilo, ez Niagara,
Ibaizabal deitzen da nire
sorterriko ibaia.

Handik alde eginda,
zubirik zubi beti,
ez nuen uste berriz
topatuko nuenik.
Orain barruan sentitzen dut
Ibaizabaleko ur uherra.

Ez dakit zelan gertatu den
 ura barrura sartzea.
Inoiz edan egingo nuen
 Ibaizabalekoa.
Ez da Danubioa,
 ez da Ganges saindua,
ume denboretako
 gure erreka lohia.
Orain bihotzetik pasatzen zait
 Ibaizabaleko ur uherra.

Ez da Danubio deitzen,
 Ibaizabal da izena.
Handik urrun ibili arren,
 barrura sartu zaidana.
Harrezkero zainetan
 dabilkidan erreka,
neure benetako izenez
 deitzen didan bakarra.
Ur zaharrez berritzen dit gogoa
 Ibaizabaleko ur uherrak.



Ikazkin liluratua

TENE MUJKA

Neure txondorra utzita iturrira nintzan
suila betetzen zegon neskatxa bat bertan.
Hark eman zidan ura, ai zer gozoa zan!
Geroztik hain gozorik ez dut berriz edan.

Ikazkina naizenez ta ikazkintzan beti
hain ume ederrik inoiz ez nuan ikusi.
Horrela bere itxurak eder, zoragarri
gentza lapurtu zion nere bihotzari.

Lagundu nion suila burura jasotzen
baina ezin ausartu etxera laguntzen.
Nahiagatik lagundu ez dakit zer nuen
inola asmatu ezin baimenik eskatzen.

Itsaso puska bat

ANDONI TOLOSA

Itsaso puska bat agertzen da aldiro autopista zubi azpian
ijitoek uzten dute gauean han izan dira lanean
eta barreiatu dituzte milaka urtetako fosilak
eta zabaldu dute arrain ustelen usaina
kresala ekarri dute eskuekin jasotakoa

horregatik autopista zubi azpian behe lainoak gatza dauka
olatuen talka usaindu daitekeela aipatzen du jendeak
hondoa jotako baporeen hezurrak ikus daitezkeela
eta begiak itxiz gero baita bertako biztanleak
anemonak olagarroak

ijitoek ekartzen duten itsasoa puskari esker
albatrosek kabi egiten dute porlanezko amildegietan
eta maria gorarekin baleak datoz Urumean barrena
koartelaren eta kartzelaren itzal gaiztoetatik gora
haien kantuekin lokartzen gara

zer dakite ijitoek hondartzan ebatsi duten itsaso ale horretaz
ba al dakite adibidez zenbat aldiz jo ote duen norbaiten ate alboan
Ba al dakite honenbestez indarrez ekarri duten itsaso apur horrek
ustekabeen esnatu egiten duela gurean ozeanoa

Itxasoan zarete ezkututzen

MARTIN CHAPLIN

Argi dago bizitza lurlean ezohiko egitura eta jatorri bitxia duen ur likidoaren baitan dagoela. Organismoak batez ere ur likidoaz osatuak daude. Ur honek funtzio asko betetzen ditu eta ez dugu kontsideratu behar diluente inerte bat bezala soilik. Garraiatu egiten du, lubrifikatu, erantzun, egonkortu, izendatu, egituratu eta zaitu. Mundu bizia molekula biologiko eta uraren arteko berdinezko elkarte bat bezala ikusi behar dugu.

Iturri zaharretik

Joxan Artze

Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten, beti berri den ura
betiko iturri zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik.

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen,
kantu zilarra entzuten,
beti berri den kantua,
betiko isiltasun zaharretik...

Noiztenka bere oinak iturrira...


ITXARO BORDA

Noiztenka bere oinak iturrira zuzentzen dira,
idorte gorriaren ondotik atseginez hanturik bezala
lohitzar bihurtzen diren lur-mokorretan lerratzeaz.

Urrats dudakorrak hats-ikara bahitzen dion unean,
urteak, hilabeteak, asteak eta eguneko ordu-izpiak
oro egarriak hilik daramatzala ohartzen da,
eta argiaren urrezko leinu hurbila bilatzen du
basamortuko kaltzio gostuko uraren ixuri ixilean.

Izpiritua huts nahi luke, zeru grisaren doluaren
partekatzeko, sai bakartien hegaletan airatzeko,
arrotz egiten gaituen altzairu-urrinaren ahanzteko,
izpiritua huts eta gogoa garbi zure aske maitatzeko.

Noiztenka bere oinak iturrira zuzentzen direlarik
izpiritua huts eta gogoa garbi senti ditzake
ur irakina harri hotzetarik ketan altxatzen dela
asmatzen duen abendu goiz herabeen.



Izaki bizi guztiak bezala

PAOLO CONSIGLI

Izaki bizi guztiak bezala, ura auto antolatutako sistema bat da: ur tanta bat berez unibertso bat da, sustantzia eta izaki biziak dituena eta dardarak sortu eta dardarei erantzuten diena. Eskala handiago batean, gure gorputzean, lurrian eta unibertso osoan gertatzen diren patroik eta sekuentzia berdinak aurkitzen ditugu. Ur tanta hau unibertsoen artean txikiena da baina guztien artean baita unibertsalena eta berezkoena.

Kanpoan euria

UNAI BAZTARRIKA

Kanpoan euria ari du.
Leihoez at, tantak sigi-saga kulunkatzen dira inorako bidean.

Barruan, guztiak arrunt jarraitzen du.
Barruan, aurpegiek ez dute keinurik.

Fabrika zaharreko tximiniei kea darie.
Autoen joan-etorria errepidean. Klipseak dira noski.

Film honetan euria ez da atrezzo eta euria ari du.
Hodeiak beltz eta lodi.

Pantaila ederra da leiho zuriez gaindikoa
laukizuzena eta ertz zehaztuen jabe.

Kanpoan euria ari du eta gaur ere
arropa urratuak ez dira lehortuko.

Ura iturrian behera

LEIRE BILBAO

Bizi garen
alde honetan
erloju-orratzen aldera
biratzen joaten da ura
iturrian behera.

Bizi zaren
alde horretan
beste aldera.

Horregatik
azken tantak
erortzen utzi aurretik
itxi nahi izan dut iturria,
ez gaitezen bakoitza
bere aldera
jiratzen joan.

Ontziak harraskan
geratu dira
eta gaur ez didazu
oheratu aurretik
baso bete ur ekarri.

Iturri bat zabalik
entzuten dudanero
esan, erantzuten diot.

Uraren erronomia

MARIA MERCE MARÇAL

Artagairik gabe, badakit, buru eta abururik gabe
maite zaitut. Ez da oin bakarrik ez eta buztanik,
denak baitoaz zuzenki uraren festaburura:
Aiztoa eta oihana, ardoa eta odola eta ogia eta ahoa.

Ubidea eta uholdea, arrosa eta aizturak,
mihiseak eta ohea, iturria eta egarri leinurua.
Dorre eroria eta zeruan iruten den adarra.
Hondar hilaren gainean, erretzen duen izotza.

Bururik eta ezer gabe, abururik eta artagairik gabe,
nire gorputzaz ezta egiten duten erle txikiak,
arbola arteko leze iluna, hatza galtzen duen amodioa.

Uholdea eta iturria, ahoa, ardoa eta egarria.
Hondarra, odola eta aiztoa, oihana eta izotza
eta urezko suhaka hau eragin duen sua.

Mendi gailurretatik

FRIEDRICH NIETZSCHE

Oi bizi-eguerdi au! Yaiaroa!
Oi uda-baratza!
Ezin egonezko zoriona zutik, zelatan eta zai:—
adixkideen nago zai, gau ta egun gertu.
Non zaudete, adixkideok? Zatozte! Ba da ordu! Ba da ordu!

Ez al zan zuentzat izotz arrea
gaur larrosaz apaindu bai'da?
Zuen billa dabil latsa, irrikiz oldartzen ta bultzatzen
dira gaur aize-odeiak ortze urdin gorenean,
urrunetik zuei begiratu-naian txori begiz.

Gorenean ipiñi dut naia zuentzat:—
nor bizi da izarretatik.
Leize-ondo latzenetatik aiñen urbil?
Nire yaurerria —zein yaurerri da, edatzenago?
Eta nire ezta —nork du dastatu?...

—Or zarete, adiskideok! Ondikoz, ni ordea ez naiz
ikusi nai zenuten ura!
Zalantzan zaudete, arriturik —ai, obe aserre ba'zindezke!
Ni —ez naiz ura gehiago? Aldaturik eskua, urratsa, arpegia?
Eta naizena, zuentzako adixkideok —ez naiz?

Beste bat billakatu naiz? neure buruari arrotz?
neure buruari iges egiñik?
borrokari bat, maizegi beraren burua garaitua?
maizegi beraren indarrean aurka gogor egiñik,
beraren gurendak zauritua ta lotua?

Oi gaztaroko irrikia, okerreretu dana!
Irrikitzen nituenak,
nire kide ta niretaratu uste nituenak,
zârtzeak ene gandik aldendu ditu:
Aldakor dana baizik ez dago nire kide.

Oi bizi-eguerdi au! Bigarren gaztaroa!
Oi uda-baratza!
Ezin egonezko zoriona zutik, zelatan eta zai!
Adixkideen nago zai, gau ta egun gertu,
adixkide berrien! Zatozte! Ba da ordu! Ba da ordu!



Uraren estratak

MIREN AGUR MEABE

ITURBURUA

Ura, lehen ispilua.
Dardara bat ur beltzean.
Ilargiak pa uraren haragiari:
ispiluaren metamorfosia.
Itzalak ihesi; erloju bat jaio da.
Ama ura, menstruazio-odola.

ARROILA

Hodeia, izotza, xirripa, turrusta, olatua, lanbroa, istila.
Uraren hizkuntza.

Onddoa, ihia, goroldioa, iratzea, lorea, igebelarra, alga.
Uraren hizkimizkia.

Larba, igela, txoria, inurria, otsoa, marraxoa, gu.
Uraren ideia.

Odola, gernua, hazia, amniosa, izerdia, adurra, malkoa.
Uraren hieroglifoa.

UBERA

Amodioaren jokoan jokatzea:
ur ertzean etzatea, beso betean;
barre egitea, begiak itxita.
Maitatzea, hitz hori ahoskatzeke.

URTEGIA

Urak neure izenez hots egiten dit,
bere bularrak eskaintzen.

Arantza bat da egarri hau.

Nire kriseiluarekin ahotsak argitzen ditut;
nire baratzean oroimena erretratutzen.
Ez dira uretan idaztekoak nire hitzak.

Ura dut lagun bataio honetan:
uretan sartzen ari naiz bizia,
uretan sartzen dihardut bizi-tza.

Urari nire egarria.

UHARTEA

Beldur bazara, begiratu zure uharteari:
ez du ezagutzen sarerik.
Harkaitzak aldarazten dituzte urek,
labirinto opakuak ere higitzen.

Mundu modernoa

MAUDE BARLOW - TONY CLARKE

Kultura moderno aurreratuek soilik ez dute ura gurtu, naturarekiko nagusitasunaz sinestuak eta salerosketaren grina sustatzen tematuak. Mundu guztiko aldeetan konsekuentziak nabarmenak dira. Hiri eta basamortuak erretak, eremu hezeak suntsituak, ur bideak kutsatuak, animalia eta haur asko hiltzen diren bitartean.

Negu atarian

PATZIKU PERURENA

Etxe azpiko pareta kontran
Pilaka enbor kondoskak,
Haizeak nonahi txokoratuak
Bazterka horbel mordoskak
Intxaur koskorrez bete beteak
Atari gaineko koskak.

*Zuriz jantziz biziaren mingaina
Zatoz negu bete, zatoz nigana!*

Aska zaharreko ur axalean
Isiltasuna plastaka,
Zirri zarraka gau zomorroak
Izu gainez arrastaka,
Oinaze puxkak zilarrez josten
Izar zorrotzak sastaka.

*Zuriz jantziz biziaren mingaina
Zatoz negu busti, zatoz nigana!*

Teila gainetan irristan datoz
Jainko urtuen malkoak.
Eguzki hilen herdoiak janak
Hegats ertzeko lakoak.
Hairi zaharrak itotipean,
Minak zulatutakoak.

*Zuriz jantziz biziaren mingaina
Zatoz negu mina, zatoz nigana!*

Zeruko zolan hotza larrutzen
Denboraren hazkazalak,
Haizea zorrotz, gorriz pintatzen
Lurraren bekain zabalak,
Loa kristalduz ixtera doaz
Neguaren betazalak.

*Zuriz jantziz biziaren mingaina
Zatoz negu, zatoz isil, nigana!*

Nire ibaia

KOLDO IZAGIRRE

Nire ibaia ez dator itsasora
nire ibaia ez da ibai
Inoizko ubidea
Kantari ez dakien erretena
Ur mehea dakar baina
Leporaino hartzen nau

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Erreka auspeztua
Izar bakarreko ispilua
Ez nau hezitzen baina
Busti egiten nau

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Ezin ditu bi bazter
Lizarrik gabeko errekaldea
Ez dakit nora baina
Eraman egiten nau

Nire ibaia ez dator itsasora
Nire ibaia ez da ibai
Egarriaren lotsa
Hodei nekatu baten malura
Ez nau asetzen baina
Ito egiten nau

Orinoco ibaia

BALENDIÑE ALBIZU

Zillarrezko printza zera,
Orinoco ibai eder aundia,
Atlantiko itxaso ertzera
eramaten dezu bizia.
Ain aundia da zure izatea
iñola ere ez zera agortzen
zu beti zaude urrez betea
gaitz da benetan zu amaitzen.
Diamantezko dizdirakin,
eguzkiak urdin zaitu apaintzen,
gero, urrezko margo zoragarriakin
illunabarrean zaitu biltzen,
biok bat eginda, maitaleak lez
itxasoan zerate ezkututzen.



Oyaneke iturria

GABIREL MANTEROLA

Odoldiari mosu emonaz
agertuten dan iturritxoak
oyanean;
bere txokotik urten daneko
txori-agurra pozarren dantzuz
ostopean.

Axe bigunak esku legunaz
arpegitxoan iguzten dautso
aizkide lez;
ta ur garden, garbi yayoparriak
bere esker ona dautso agertzen
irribarrez.

Zear-mearka bildur-ikaraz
ibili dabil ezautzeztoben
bidetxoan;
eta zertxobait nekau bailitzan
geldituten da bidean daurkin
txokotxoan.

Baña arpegia txoko ertzera
agertu dau ta bean ibai bat
ikusirik,
zer ete dagon yakinguriaz
amildegitik doa ikotika
geldi barik.

Zerbait izukor urreratu da
ibaira baña, gaxoa alako
uste barik,
ta, ara ur loyak barruan dauzan
ibai zikiñaz non gelditzen dan
bat egiñik.

Irudi ontan zenbat ta zenbat
euskotar gaste geinkez ikusi
antzeztuta;
Au bai tamala..! Oyanetako
ur garden leuna, loi dan uragaz
alkartuta...!

Sommelier

ANTONIO CASADO DA ROCHA

Uda honetakoa gogoan dut
musketa exotiko xarmanta espezia eta abrikotekin
mertxika litxi misteriotsu eta amusagarri
plastikozko botila txuri bat Bristoleko ur epel
nire eskuan zeharkatzen ari nintzela
Avon ibaiaren ertza batetik bestera
Clifton zubiaren gainean
uztaileko arratsalde bero batean

2013koa

baina gehiago daude
gerezi eta andere-mahats fresko fruta ugaridun
piper hauts ukituekin eta bukaera iraunkor
Huescako ur delizios hotza harrizko iturrian
Petretxema eta Atxerito igo eta gero
aspaldiko 1996ko abuztuaren hasieran
hasteko
eta jarraitzeko reserva bat ala beste
ahantzi gabe iazko uzta gaur dastatutakoa
jengibre eta lima lurrinezko txinparta gutxiek
plastikozko baso bat Hernaniko txorrotako ur gasdun
Santa Barbara mendiko tontorrean
sagarrondoaren artean hegan egiten
gehiago ala gutxiago izateak
lehena edo azkena
ez du axola
segi ezazu korrika egiten
ase arte segi ezazu edaten.

Ura

DAMIÁN PEDROSA

(2018-03-28)

Ur-bizitza, denboraren dimentsioa eta materiaren hezur-mamitzea.
“Dena ura zela” ondorioztatu zuenean zuzen ibili zen Tales.
Materia-unibertsoaren misterioak ebatzi zituen berak,
baina, guretzat, Platonen “ideien munduaren” semeentzat,
ideiek ere hasiera berdina dute: ideiak ura dira.
Ura gardena bada, orduan garbia, berezkoa;
eta ideiak gardenak badira, orduan benetakoak.
Argia pasatzen uzten duten gorputzen arima gardentasuna da,
gardentasuna ere konfiantzazko baliabidea da,
egia loratzen laguntzen duena.
Noizbait beharrean, etengabe ematen diren gardentasuna eta egia;
ura bezala, mugitzen birsortzen dena;
denbora bezala, materia-mugimendua dena;
“dena joan-etorria” baita –Heraklitok zionez.
Horrela, pentsamenduaren joan-etorriak dira gure ideiak,
eta gure hitzak ur-iturriak
non besteen gorputzen egarria ase,
non maitatua izatearen egarria ase,
non bizitza-egarria ase.

Zakhur hil bati

JON MIRANDE

Zakhur zahar bat errekan
—nehork ez jakin nondik jinik—
zakhur bat zoan errekan
uretan gaindi, arhin, hilik.

Ur luminos, hotx, gardenek
laztantzen zuten behilkia;
sorgin-orratz botz, lerdenek
miresten zuten sarraskia.

Goizean goiz urera jin
arrantzaleek agurtzen zuten.
Noizean noiz, arrantzaleen
hamu tzarrek sistatzen zuten.

Naosiak atzo itho zun
zabar egin baitzan zahartuz:
Landeretan etzaten zan
landan behiak ezin zainduz.

Norat, erradak, errekan
uraren hotzez konkorturik,
norat ba hoa itsurat,
hilaren hotzez gogorturik?

Ur luminos, hotx, gardenek
ahantzi zuten sarraskia;
sorgin-orratz botz, lerdenek
entzuten orhoit behilkia...


Nik soilik, arima baithan
usnatu nizun hil usaina.
Nik soilik nire Ekklêsian
dut ohoratu hil anaia.

Zerbaiti eustea

MARINA GARCÉS

Zerbaiti eustea ez da bakarrik *jasatea edo aguantzzea*. Jasan besterik nahi ez duena, harri bihurturik edo apurturik amaitzen da. Askotan, gehiegitan, bizitza en-gaiatuak bihurtzen dira bizitza dogmatiko, bizitza erreta. Eta erre diren bizitzek ondoriorik gaiztoenak dakartzate: zinismoa, samintasuna, norberekeria, gaitzondoa. Eustea ez da jasatea, iraun ahal izatea baizik. Iraunkortasunari eustea zaila izan daiteke, baina ez da zurruna. Jaso eta hartu, askatu eta berrartu, ikasi eta ulertu. Management munduan eta emozioen kudeaketan, arrakastatsua da olatuak surfean hartzearen irudia. Malgutasunaren balio ekintzailearen irudi egokia da: erori egin hondoa jo gabe, berriro gorantz egiteko. Baina sartu-irtenak egitea ez da surf egitea: gu geu olatuak izaten ikastea da.

Testu hauek
Hernanin irakurri ziren
jendaurrean
2018ko maiatzaren 5an
Ura izeneko
ekitaldian



URRA

DATEKO

HERNANI



KAYE-IRAKURKADA
MAIAZAK 5
12.00 BITERTK

